

Bilbo, 2012ko martxoaren 13

Egunon jaun-andre guztioi:

Egunon Andres Urrutia euskaltzainburu jaunari, egunon BBKko ordezkari Gorka Martinez eta Oscar Clementeri, egunon sariturik izan zareten neska-mutiloi, eta, azkenik, egunon hona etorri zareten guztioi.

Idazten dugunean paper zurira edo ordenadoreko pantailara isuri ohi dugu buru-bihotzetan daukaguna. Begien aurrean dugun paper xuri horretan hitzez testu bat ehuten dugu, ehuleak harien bidez oihala ehuten duen bezalaxe. Testuaren lehenengo hitzak banaka lerrokatu ohi ditugu, eta, gerora, gure hitzek bizia hartuko balute bezala, ehundaka eta milaka hitzez bidez testu bat, hitzezko oihal bat sortzen da.

Ehuten dugun testu hori, paper zurian hizka osatu dugun kate luze hori munduan bakarra bakarra da. Ez dago kate horren berdin-berdina den beste diskurtsurik mundu osoan. Denen hitzen konbinazioa pertsonala da, bakarra. Hitzak denonak dira, baina guk eman diogun segida bakarra da. Guk eratu edo ehun dugun testua bakarra da. Eta testu hori, nola ez, ispilu bihurtzen da. Gure gogo-bihotzetako ispilu. Gure nahiak, kezak, asmoak islatzen dira espilu horretan. Gure sentiberatasuna eta argitasuna ere ispilu horretan daude. Ispilu horrek, gainera, gure uste,

bulko, sentipenak ordenatzen ditu. Barnean daramagunak itxura bat hartzen du hitzen bidez. Hori da idaztearen mirarrietako bat. Bakoitzak modu bat edo gehiagoan egin dezake, baina pertsona guztiek desberdin egingo dute.

Gure lana, epaileon lana, neska-mutikoek egindako testurik ederrenak aukeratzea izan da.

## NARRAZIOA

### LEHEN SARIA: Metamorfosia

Erdaraz halaxe itzultzen da Kafkaran elaberri famatua edo Ovidioren lana. Gure ipuineko protagonistak etxea utzi behar izan du, gaur eguneko desahuzio edo etxe uzte bat adierazten du. Eta metamorfosia da gure protagonistak ere etxea utzi ondoren aldakuntza bat egin beharra duelako.

Gure ipuin honek gaur eguneko gai mingotx bat darabil, krisialdiko gairik mingotsenetako bat. Gai hori poesia handiz eta modu pertsonalean darabil. Hona pasarte bat:

Baina etorkizuna aurrera egitea da, aldatzea eta pasatakoa atzean uztea. Beharbada, oldarraldi bati eskua emanda, pentsa dezaket beldar izateari utzi dion tximeleta naizela. Amonak euria maite zuen,

eta nik tximeletaren metamorfosia. Arrautza utzi berritan, narrasean igarotzen ditu egun batzuetako orduak, sabela betez, lau egun krisalidan igarotzeko, hegoak josten. Horixe da bere bizitza, etengabeko metamorfosia.

## BIGARREN SARIA Goian bego

Iñigo eta Mikel anaiak jauregi batean bizi dira. Iñigo anaia zaharra da eta Mikel gaztea. Egun batean Iñigok, etxera sartzean, bere aita hila ikusiko du. Aitaren hiletaren ondoko egunean anaia zaharrak, Iñigok, karabela batean beste lurralde ezezagun batzuetara joango da. Urte batzuen buruan Iñigo itzuliko da eta anai bien arten aitaren heriotza argitu beharko dute.

Ipuin honetako narrazioa indar handikoa da hikan Mikelek, anaia gazteak, kontatua.

Honela hasten da:

Atea danbateko ozen batez ireki zuan. Kanpoko argi lotsagabeak gela zikin eta ustela argitu, eta hi, Iñigo, sartu hintzen atetik, arrapalada batean, tximista bat bahintz bezala.

–Aita! Lortu dut! Lortu dut!–oihukatu huen pozez gainezka.

HIRUGARREN SARIA: 06:18

Miren, Irene eta Irati hiru neskatila dira. Hiruak eskolara joan behar dute eta hirurek beren eguneroko eginbeharrei erantzun behar diete. Iratiren gurasoak, esaterako, ikasle onak izanak dira eta beren alabari ere gogor esigituko diote. Hirurek aurre egin beharko diote beren eguneko eginbeharrei, goizean goiz hasita. Goizeko seirak eta hamazortzi minutuan joko du iratzargailuak eta.

Hona pasarte bat:

Beltza omen da kolore guztiak bere baitan gordetzen dituen bakarra. Ez omen dio bakarrari ere ihes egiten uzten, ez kolore, ez pertsona. Baina telebistaren pantaila beltzetik irudiek ihes egitea lortzen dute, eta hor dago Irati, sofan, luze etzanda, mugitu gabe, ezerezari begira. Begiek ezin ditu, ordea, denbora luzean irekita mantendu, betazalek likidoa behar omen dute, eta eskerrak horri.

Olerkia

LEHEN SARIA: Agerraldi perfektuenetan

Poema honetan ilargia eta itsasoa aipatzen dira batez ere. Ilargia ez da ohartzen bere edertasunaz, ez da bere edertasunaren jabe. Honelaxe bukatzen da poema:

Eta zorigaitzez,

ilargiabera ez da jabetzen,  
ez da ohartzen.

Ez daki ikusten funtsean...  
funtsean gerizpeko parlarik baliotsuena dela,  
ur gazian islatzen den musurik bitxiena  
perimetro gabeko bide galduan formarik  
biribilena  
eta iluntasuna duen argitan  
iruntzirik argitsuena.

Ilargia da izarren izar, gaueko antzezle  
gaueko antzezle zerumugetako agerraldietan  
agerraldi perfektuenetan.

BIGARREN SARIA: Baztertutako zapata  
gehiago egon ez dadin

Budapesten Danubio ibai ertzean burdinezko  
zapata batzuk juduen oroimenezko oroitarri bat  
eratzen dute. Baztertutako zapata gehiago egon ez  
dadin poemak Burdinezko zapata hauek ardatz  
hartzen ditu. Honela hasten da olerkia:

Igandeetako aldizkari horietako batean ikusi  
zaituztet,

Danubioaren ertzean,  
Budapesten bihotzean,  
juduen oroimenez egindako oroitarri bitxia.

Pentsatu du, pixkanaka-pixkanaka,

Zauriak sendatuz joan direla,  
orbanak ezabatuz,  
oroitzapenak ahaztuz,  
eta ibai ertzean, zain dauden zapata triste batzuk  
soilik geratu zaretela.

### HIRUGARREN SARIA: Tangoaren eskean

Tangoa du ardatz *Tangoaren eskean* poemak.  
Tangoa delako dantza moeta bandoneoiaren  
konpasean egin ohi da eta desiraren dantza moeta da  
inolaz ere. Honelaxe haste da olerkia:

Urduri mingainak dirudi  
lasaitasunak engaina nazala  
eta azala busti izerdiz  
erdi malkoz, erdi euriz  
koloretako ametsaren egarriz  
behin eta berriz, behin eta berriz.